



Arabako Errioxako 2020ko urtaldiaren balorazioa.

Kanpaina atipikoa izan da agronomiari dagokionez, bai eta COVID-19aren pandemiak markatua ere

- **Kanpainaren garapena**

Neguaren hasiera eta egun gutxi batzuk urtearen amaieratik urtarrilaren bigarren hamarraldira arte salbuespena izan ziren meteorologiari dagokionez, non hotza ez baitzen kasik nabaritu. Hortaz, neguaren azken balantzea da lehorra eta epela izan zela. Temperatura altuek martxoaren erdialdera aurreratu zuten ernatzea, baina, zorionez, Arabako Errioxan ez zen zero gradutik beherako erregistrorik izan.

Apiriletik aurrera, euria etengabe bota zuen udaberri osoan zehar eta temperatura altuak egon ziren. Udaberrian euriteak hain ugariak izan ziren, non ohiko kopuruak ia bikoiztu egin baitziren. Temperaturak, era berean, anormalki altuak izan ziren. Udaberrian behin eta berriro izan ziren ekaitzek ekarri zuten ur ugaritasunak eta temperatura altuek, mahastietako kimuak azkar haztea ahalbidetu zuten, eta maiatzaren hasieran jada urte zaila izango zela iragarri zen gaixotasun fungikoei dagokionez. Maiatzean sarritan jo zuen ekaitzak, eta txingorra utzi zuen Arabako Errioxako zonarik mendebalderenean.

Ekaina maiatza bezala hasi zen, giro asaldatuarekin, tenperatura oso altuekin eta ur ugariako ekaitzekin; hau da, mildiua garatzeko baldintza oso egokiekin, eta tratamenduak egiteko zailtasunekin, lurraren egoeraren ondorioz. Arabako Errioxako eremu zabal batean, mildiua ondoz nabarmen kaltetutako mahastiak antzematen hasi ziren ekainaren hasieran, eta hura kontrolatzeko zailtasuna egon zen.

Eraso hori azken urteotako goiztiarrena eta nabarmenena izan da, 2018ko kanpainakoa baino are handiagoa.

Mahastia behar baino 15 egun lehenago hasi zen loratzen, ekainaren hasiera inguruan, eta bat egin zuten mildiua mahats mordoari eragiten dion arrisku eta afekzio handieneko faseak eta loratzea eta mamitzeak. Ekainaren 15ean, txingor ekaitz gogor batek gogor jo zuen Arabako Errioxan, eta bi fokutan izan zuen eragina: Navaridas-Eskuernaga-Samaniegoren eta inguruetan, eta Bastidan, azken horretan intentsitate txikiagoarekin. Ekainaren 25ean beste txingor ekaitz bat izan zen, eta kalteak eragin zituen Guardia, Lapuebla eta Eltziegoko zenbait parajetako mahastietan.

Zorionez, eguraldiak atsedean eman zuen loraldian eta mamitzearen lehen egunetan, eta egun freskoak eta euriteak tartekatu ziren. Finketara sartzeko eta mildiua izandako aurrerapena aldi baterako geldiarazteko aprobetxatu zen. Loraldi-mamitze fasean eragindako kalteek fruituaren lore galera handia eragiten dute.

Mamitzetik aurrera, ia "tropikala" izan zen meteorologiak mildiua garatzeko baldintza ezin hobeak eman zituen: beroa, ur ugari eta baita harria ere. Hori dela eta, mahastizainek oso tratamendu errepikatuek egin behar izan zituzten, eta gaixotasuna kontrolatzeko produktu oso espezifikoekin. Mahasti ekologikoak izan ziren, alde handiarekin, kaltetuenak, ez baitute mahastizaintza konbentzionalaren baliabide fitosanitariorik.

Uztailaren amaieran izan zen kolore aldaketa, ohi baino astebete-hamar egun lehenago; une horretan, mildiua eta oidioa kontrolatuzat jo ziren.

Uztaileko azken astean eta abuztuko lehen hamabostaldian ekaitzak izan ziren maiz, muturreko beroarekin batera, eta euria egin zuen eskualde osoan era ezberdinean banatuta, baita txingorra ere, Bastidan (uztailaren



30ean), Navaridasen, Lezan eta Paganos-Guardian (abuztuaren 11n) edo Binasperi-Lantziegon eta Kripanen (abuztuaren 12an). Hala eta guztiz ere, abuztuaren erdialdean, oro har, mahastiak aurreikuspen onak zituen heltzeari dagokionez; izan ere, mildiaren eragin handieneko eremuetan, mahats mordo solte eta luzatuak izan zituzten eta neurritzko ekoizpenak izan zituzten (gaixotasunaren ondorio positiboak), eta, mildiuk eragin handirik izan ez zuen ekialdeko eremuan, ekoizpen orekatuak. Abuztu bukaera eta irailaren hasieran, eguneko tenperatura balio normaletan mantendu zen; egun batzuk hotzak izan ziren garai horretarako. Gau freskoak izateari, eguneko eta gaueko tenperaturaren arteko aldeari, ur nahikoa izateari eta argitasun handiari esker, kolore aldaketaren amaieratzat jotzen den aldian, konposatu fenolikoen bilakaera oso ona izan zen; heltze fenomenoak moteldu zen eta, gainera, mahastiak berdintzen lagundu zuen.

Heltzearen azken egunetan, eguraldiak gau freskoekin eta egun argitsuarekin lagundu zuen, tenperatura handiegirik gabe, eta, horri esker, heltze prozesua ezin hobeto amaitu zen ziklo osoan, botrytis zantzurik gabe. Irailaren erdialdetik aurrera soilik, zaparradak bota zituen egun batzuetan, eta horrek mantsotu egin zuen mahats bilketa, baina ez zuen ondorio kaltegarrikerik eragin mahatsaren kalitatean. Bildu zen mahatsak osasun aparta zeukan. Bilketa horretako mahatsak errendimendu ertainak eta mahats ale solteak izan zituen, alegia, lore galtzearen eta mildiaren albo-efektuak, baina, kasu honetan, kalitatetarako positiboak.

Azkenean, kanpaina benetan zail baten ondoren, ziurgabetasun handia egon baitzen meteorologiaren eta pandemiaren krisiak eragindako mahatsaren prezio zurrumurruen ondorioz, mahats bilketa goiztiarra eta azkarra izan zen. Irailaren erdialdean hasi ziren mahatsa biltzen Arabako Errioxan, eta hilabete eskasean lurtzati bakarren batean baino ez ziren geratzen mahats mordoak mahats orpoetan.

Kanpaina amaieran intsektuek arazo larri gehiegirik ekarri ez bazituzten ere (trips, eltxo berde eta sitsen eraso batzuk), gaixotasun fungikoen ondorioz, mildiuk gaixotasunaren ondorioz zehazki, mahastiak aspaldian ezagutzen ez zen egoeran geratu ziren. Hartara, COVID-19arengatik jada bereziki zaila bazen, urtea are gehiago zaildu zen, eta mahastizainek aparteko ahalegina egin behar izan zuten laborearen osasuntsu mantentzeko borrokatuz, galera handiagoak eragotzita.

• **Uztaren emaitzak eta balioespina**

Kontseilu arautzaileak jada badituen datu zehatzetan sartu gabe, kanpaina honetan upeltegira sartu den mahatsa neurritsua izan da, 2019ko uztakoa baino pixka bat gehiago, aurreko uzta laburra izan baitzen. Mahasti gehienetan, errendimenduak kanpaina honetarako babestu zitezkeen gehienekoetara egokitu ziren, eta mahats bilketaren arauetan % 10 murriztu ziren.

Loratze eta mamitze garaian euri ugari egin zuenez, mahats mordoak ale solteekin geratu ziren; hortaz, errendimenduak murriztu egin ziren eta heltzeari eta osasunari on egin zion bilketan.

Gaur egun, Guardiako estazio enologikoan aztertu diren ardoek konplikaziorik gabeko hartidura alkoholikoa osatu dute, eta gehienek malolaktika amaitu dute. Orain egiten ari diren ardoek, oro har, egitura eta profil aromatiko atsegina dauzkate.

Hona hemen kalitate kontrolerako aztertutako ardo beltzen batez besteko balio analitikoak:

Alkohol graduazioa: 14,08% vol.
Azidotetasun total tartarikoa: 4,98 g/l
pH-a: 3.71
Zama polifenolikoa, ITP: 60,79
Kolorearen intentsitatea: 11,57
Aterakin lehor totala: 28,69 g/l



Aurreko datuek erakusten dutenez, batez besteko maila handia da, bai eta kolorearen intentsitatea eta zama fenolikoa ere, eta Arabako Errioxan ohiz kanpokoak izan zen aurreko kanpainan beste lortu da ia. PH-a, azidotasun totala eta aterakin lehorra azken kanpainetako balioen oso antzekoak izan dira.

Analisi sentsorialari dagokionez, dastaketa batzordeak aztertutako ardo gehienek oso ezaugarri interesgarriak erakusten dituzte sudurrean zein ahoan; fruta nabarmen ageri da, egitura handia du, oreka dago ezaugarri desberdinen artean, bai eta profil aromatiko atsegina ere. Ezaugarri horiek guztiek 2020ko uzta kalitate handikoa aurreikusten dute ardo gazteentzat, eta enologia ahalmen handia ontzeko gordetzen direnentzat nola ardo beltzetan hala ardo zurietan.

Laburbilduz, parametro analitiko zuzenak eta dastatzeetan analisi sentsorial oso egokiak izan dituzten ardoak direla ikusi da, eta, beraz, gaur egun ondoriozta daiteke, haien ahalmen enologikoaren arabera, 2020ko uztaren balorazio orokorra Arabako Errioxarako honako hau dela, Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren arabera: **OSO ONA**.

Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua

2021EKO APIRILA